

“Gaineratekoen Bilduma”

Aurkezpena SARAKo Idazleen Biltzarrean (2013-04-01)

Egun, hemen (Saran), Euskaltzaindiak plazaratzen du “Gaineratekoen Bilduma”, Adema-Zaldubiren zazpigarren eta azken liburukia, oraingo ustez. Horrek ez du erran nahi haren obra erraldoia osoki agortu dugunik. Jadanik errana dugu badirela kopiak doblezka desberdintasun ttiki batzuekin ; badira ere, han edo hemen, eta bereziki apez egon den herrietan, lerro anitz oraino miaztekoak.

Halarik ere, uste dugu mamitsuenak zazpi liburuki hauetan daudela. Hain xuxen, zazpigarren hau deitzear dugu “Zazpiak bat”: zazpigarrena delakotz, bistan dena, baina are gehiago, aldarrikapen hori edo horren erran-nahia orrialde hauetan indartsu errepikatzen baita, bizpalau artikulutan bederen, eta bereziki ‘Mendiko Artzain Beltxaren’ bertso adierazgarria hor baitugu lekuko :

**Frantseseriak sopra apaltzen bagaitik,
Hobe giniek jarri berex Frantziatik,
Ai ai ai Mutillak, berex Frantziatik !**

Bai horra zer idazten zuen Zaldubik, bere denborako apez argituenetarik batek? duela jadanik 150 urte ! Euskal Herriaren burujabetasun aldarrikapena ez da beraz duela 50 urte hasia : aise lehenagokoak ditu bere erroak : “Zazpi Euskal-herriek bat egin dezagun” kantu famatuaren ondotik huna gure senpertar handiak “Frantziatik bereiztea” ere aipatzen digula argi eta garbi.

Eta ez da apalago mintzo erdarazkoetan! Irakur otoi, liburu huntan berean, “*Les Traditions du Pays Basque*”, 1887an, Maulen egin zuen mintzaldi miresgarri hura ; balio du.

Ordea, jadanik aski aldiz errepikatua dugun bezala, idazki asko erlijioaren eta politikaren ingurukoak izanagatik, edizio hauek euskararen sustatzea dute helburu lehen.

Orain arteko sei liburukiak eskuizkribuetarik zetozen soilik. Aldi huntan ere bada eskuzko zati bat, eta ez txarrena! baina gehienak datoz lehenago hain famatua izan zen ‘Eskualduna’ kazetan agertuetarik, bera bizi zelarik han publikatuak, edo hil ondoko urteetan berri, egundainokotan, argitaratu zituztenak.

Berriki, ‘Lapurdum’ aldizkariak ere, arta handiz, interneten, denen eskuko ezarri ditu lan horietarik batzuk.

Ikusiko dugu zazpigarren huntan ere gure Adema-Zaldubi, beti bezain langile artista eta idazle ona, bai euskaraz, bai eta ere erdaraz ; bertso

idazle zorrotz eta jakintsu handia, geroztikako ikerkuntza batzuek, haren iritziez bertzerik erraten badigute ere gaur.

Azkueri igorri zion gutuna irakurriz, ikusiko dugu oraino, ohargarria baita ene ustez, euskararen akademia baten beharra zein argi zeukan, 1894an jadanik.

Argitaratu gabe geldituko da, bereziki, bere egutegi pertsonala, bederatzi tomo ! Ezin agertua: etxeko aferak ere barnean baitauzka. Bederatzigarrena eskuan izan dugu. Ikaragarria da, egunean eguneko hainbertze xehetasunekin ! Hil arte artoski bete zuen... Bakarren xehetasunak aurkituko dituzte hor, ondoko belaunaldiek, noizbait... agian...

Dena den, Euskal Elizari eta haren ordezkari zenbaiti zor handiak ditu euskarak. Iparraldean, bertzeak bertze, “Eskualduna” eta “Herria” bezalako astekariak hemengo nola munduko berriekin, euskararik ederrenean, familiatarat hedatu dituztenak gogoan atxik ditzagun eta guzien artetik bat deitu behar izanez gero : Piarres Lafitte zena.

Baina gaur bereziki, milesker zuri, Gratien Adema-Zaldubi, holako lekukotasun paregabea utzirik : bortzpasei urtez zurekin bizi izan naiz, ondoan izan bazintut bezala ! Ni ez bezalako langilea mereziko zuen, haatik, zure obrak ! Argi eta garbi daukat orain, euskararen eta Euskal Herriaren alde maitasun osoz egin lanak, noizbait bederen, ahanziaren ilunpeak zilatuko dituela.

Milesker Ales Bengoetxea, Xabier Altzibar eta Piarres Charritton jaunei : horien lan bikainak lagungarri izan baitzaizkit azken urte hauetan, gero guziak ene gisarat itzulikatu baditut ere paperean.

Milesker zuri Andres Urrutia, Euskaltzainburu jauna, burutik-buru, zuk egin didazun konfidentziak gain-gainetik sustatu bainau.

Ez dut ahanzten, bistan dena, Euskararen Erakunde Publikoa, diruztatzaileetarik bat izan dena, haste-hastetik.

Eta zueri, egungo Entzule eta agian biharko gure Irakurle izanen zareztenei, hau guzia, zerbaitetan, probetxugarri izan dakizuela.

Henri Duhau